

GAIA: ERAIKIN ETA ETXEBIZITZEN BIRGAITZERAKO MAILEGUAK

Gutun honen bidez jakinarazi nahi dizugu **Eusko Jaurlaritzak eta kreditu-erakundeek badutela beraien arteko finantza-lankidetzarako dekretu berria eraikinen eta etxebizitzen birgaitzerako maileguak arautzen duena**. Dekretua 2015eko abuztuaren 5etik aurrera eskatutako maileguei aplikatuko zaie eta hauen ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

- **Maileguaren zenbatekoa** Eusko Jaurlaritzak birgaitzerako laguntzen eskaerari erantzundako **ebazpenak zehaztuko du**.
- Lehenengo urteari dagokion **interes-tasa Euribor+2,40koa** izango da. Lehenengo urtea gaindituta 6 hilero berrikusiko da momentu horretan dagokion Euribor-arekin +2,40.
- **Amortizazio-epea 15 urtekoa** (3 urteko gabealdiko aukerarekin) izango da **mailegu hipotekarioetan** eta **5 urtekoa** (gehienez 3 urteko gabealdiarekin) **mailegu pertsonaletan**.
- **Amortizazio-jarduera** konstanteen bidez egingo da horren amortizazioa (frantses sistema) **hileko muga-egunekin**.
- Ez dira aplikatuko mailegu biziaren %0,20a baino handiagoak diren komisio edo zehapenik.
- Zordunak amortizazio aurreratuak egin ditzake, hala saldo bizia nola amortizazio-epea murrizteko. Amortizazio hauek, totalak edo zati batenak, ez dute komisiorik izango legalki ezarritakoetatik kanpo.

Finantza-lankidetzako hitzarmena sinatu duten kreditu-erakundeek babesgarriak diren jarduketarako **finantzazioa emango dute, betiere araudi erregulatzailan aurreikusitako betekizunak betetzen badira kreditu-erakundeek maileguak emateko irizpideekin**. Horretarako giza-baliabide eta baliabide teknikoak ipiniko dituzte interesdunak informatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren ebazpenarekin maileguaren %50 eskuratzetik izango da eta gainerakoa honen ziurtagiriarekin.

Etxebizitza ezin izango da laga inolaz ere bizikien artean **5 urteren bitartean laguntzak jaso zirenetik**, Eusko Jaurlaritzara jasotako laguntzen zenbateko osoa itzuli gabe, jaso zituenetik izandako interesetan gehituz. Xede honetatik kanpo daude higiezin elementu komunei eragiten dieten birgaitzeak. Elementu pribatiboetan erregistro-inskripzioa egitea beharrezkoa izango da Jabetzaren Erregistroan diruz lagundutako zenbatekoa 1.500 € gainditzen dituenean.

Argibideren bat behar izanez gero **943 344 160** zenbakira hots egin edota posta elektronikoz **xsanchez@oarsoaldea.net** helbidera idatzi.

Agur bero bat,

Xabier Sanchez
Hiri Berriztapen eta Mugikortasuna
Oarsoaldea

I. ERASKINA

FINANTZA ERAKUNDE SINATZAILEEN ZERRENDA

FINANTZA ERAKUNDE IZENPETZAILEEN ZERRENDA

- 1.– Kutxabank.
- 2.– Banco Bilbao Vizcaya Argentaria-BBVA.
- 3.– Laboral-Kutxa
- 4.– Caja Rural de Navarra.
- 5.– Ibercaja Banco, S.A.U.
- 6.– Caixabank, S.A.
- 7.– Banco Sabadell-Guipuzcoano.
- 8.– Banco Santander.
- 9.– Bankia, S.A.
- 10.– Grupo Banco Popular.
- 11.– Bankoa-Crédit Agricole.